

Oi! Begi jostari
 zerbait az azalez;
 bertara ezkeru,
 barrutik ezerez.

Neskatx koskortxo!
 —ba-dakit atzotik—
 azala don eder,
 baiña barrua utsik

Gerora sarri aut
 jolaska oartu;
 alan be beti aut
 ziñez errukitu.

Ez intzan lurreko;
 nungoa ete intzan?

LUR - SABELA

Lur azalean nabilkizu
 gaur oiñazez, biar pozik;
 lurrak, orde, beti adeitsu
 ez dauka begitu miñik.

Zabar antzera, gau ta egun
 bere igaliak dauz zaintzen;
 ezta guraso oberik iñoiz
 errai-umeak babesten.

Landara bat gura ezkeru,
 zeure dozu baraztia;
 sagar bat nai baldin ba'dozu,
 zeure dozu sagastia.

Larrosa zuri bat artzeko
 luzatu zeure eskua;
 lurrak ez dautzu zikoiztuko
 beraren sabel zitua.

Zer jan, zerez jantzi jarduki,
 ez, etzaite iñoiz kezkatu:
 barrenean dau su-labea,
 gar goritan oparotsu.

Ona aren gogamen bakarra:
 zitu barriak ernazo.
 Zer orrek uts-emonez gero,
 mundu jaurguan zer jazo?

Ez kezkarik, barriz diñotzut.
 Ez dakusula bizirik?
 Geroko madari mardula
 lurrean datza oraindik.

* * *

Biotz: sugartu zuk be barrua,
 geroaz burutapentsu:
 lupetz ospetan estalduta
 aneika margo dituzu.

UDA ZIGORKARIA

Zemai kiskal oi dokan,
 uda zigorkari:
 gutaz, egun bederen,
 erruki izan adi.

Suzko sasta eztenak
 jaurtzen az zangarra
 ta gori-gori daukak
 jzadi bularra.